

Euripidesen benetako tragediak

EURIPOKO ITSASARTEA (GREZIA), K.A. 480. URTEA. Bigarren Gerra Mediko betean, Greziako hiri-estatuak pertsiar inperioaren armadaren aurka borrokatu ziren Salaminako itsas guduan. Grezia inbaditzeko pertsiarrek egin zuten bigarren ahal-egina alferrikakoa izan zen, eta gudua greziarrek irabazi zuten.


Garaipenaren egun berean, Salaminan bertan, Klitonis eta Mnesarko tabernarien semea jaio zen. Garaipena eta jaiotza bat etortzea seinale ontzat hartu zuten; haurrari zorte ona ekarriko omen zion. Hala, gudua Euripoko itsasartetik gertu amaitu zenez, jaioberriari Euripides izena jarri zioten.

Iragarpen baikor horiek haurtzarorari hasi ziren hausten. Euripidesek berak idatzi zuenez, gurasoak ez ziren batere ondo konpontzen eta elkarren arteko etengabeko liskarrek tartean harrapatzen zuten haurra.

Ikasle ona izan arren, lanak izan zituen karrera bideratzeko. Atletika izateko ahalegina egin zuen lehenik. Gero, Atenasko Polignotoren margolanek erakarrita, margolaria izateko grina piztu zitzaion. Erretorikako maisu eta filosofo izateko ere trebatzen hasi zen. Baina horietan guztietan porrot egin zuen.

Azkenean, tragedian nabarmendu zen. Antzinako Greziako hiru tragediagile nagusietako bat izan zen, Eskilorekin eta Sofoklesekin batera. 95 tragedia inguru idatzi zituela uste da, hamazortzi edo hemeretzi baino gorde ez diren arren. Euripidesek tragediara ekarritako berrikuntzek eragin handia izango zuten antzerkigintzan. Esaterako, ez zen ohikoa emakumezko pertsonaia hark bezalako errespetuz eta indarrez jorratzea; *Medea* lana horren adibide garbia da. Baina bere garaian Euripidesek ez zuen nahi adina arrakastarik lortu.

Adituek bikaintzat jotzen zituzten idazlearen obrak. Sokrates lagun mina zuen, eta filosofo handia Euripidesek idatzitako lanak ikustera besterik ez omen zen joaten antzokira.



Euripidesen bustoa, K.a. 330. urte inguruko artelan greziar batean oinarritutako kopia erromatarra.

Baina, oro har, publikoak aspergarritzat jotzen zituen haren tragediak. Sofoklesek hogeitabat tragedia lehiaketa irabazi zituen; Eskilok, hamahiru; Euripidesek lau besterik ez. Arrakasta partzial horrek etengabeko ezinegona eragiten zion Salaminako idazleari.

Hori gutxi balitz halitosi larria omen zuen Euripidesek, eta jendea ez omen zitzaion hurbiltzen. Hala ere, bitan ezkontzea lortu zuen.

K.a. 408. urtean mahiko garbi zegoen atenastarrek Peloponesoko gerra galduko zutela eta, hiriko giro nahasitik ihesi, Euripides Mazedoniarra joan zen, Arkelao I.a erregeak gortean bizitzeko gonbita egin zionean. Baina egoera hura gutxi luzatu zuen. K.a. 406. urtean hil zen Euripides, kondairak dienez, txakur saldo batek janda. Haren tragediak ez ziren hor amaitu. Idazlea hil eta hainbat urtera, haren hilobiaren alboan ur pozoitsuzko iturburu bat azaleratu omen zen. Hala, bizi artean hats-kiratsak bezala, hil ondoren iturburuak urrundu zituen bisitariak. ■



Arrastoak

Koadroak gehiegi jaitsi zituen museologoa

PAUL J. SACHS Harvardeko Fogg arte museoeko zuzendaria eta museologia modernoaren aitzindarietakoa izan zen. 1922an *Museoko lana eta museo-ko arazoak* izeneko ikastaro berritzailea ematen hasi zen Harvardeko unibertsitatean. Artearekin zuzenean zerikusia zuten gaiez gain, museoaren finantzei eta kudeaketari buruzkoak ere jorratzen zituen ikastaroan. Sachsen eskoletatik gero AEBetako eta Europako museo nagusietako zuzendari eta kudeatzaileak izango ziren ikasle asko igaro ziren eta, hala, haren ikuspegiak eragin handia izan zuen XX. mendeko museologian.

Erakusketa-espazioen antolaketa ere landu zuen Sachsek. Artelanak altuegi jartzeko joera zegoela uste zuen eta Fogg museoan koadroak ikuslearen begien parera jaistea erabaki zuen. Kontua da Sachs gizon txikia zela; ez zen metro eta erdira iristen. Haren ikasleek altuera hura arautzat hartu zuten eta, urtetan, munduko museo askotan lanak behar baino baxuago eseki zituzten. ■



Paul J. Sachs (1878-1965).